


SOINUENEA FUNDAZIOA MARTXAN DA

1995tik 2002arteko prestaketa lanen ondotik Herri Musikaren Txokoa sortu zen eta honen 10 urtetako ernaldiaren ondotik Soinuenea sortu da



SOINUENEA

Orain Soinuenea bilakatu den hau orain dela urte asko hasi bazen ere, 1994an hartu zuen herri musikaren dokumentazio zentroa izateko norabide sendoa.

Aita Donostiaren euskal kantutegiaren prestaketa lanak bukatu ondoren, 1994an Juan Mari Beltranek berrartu zuen aurretik bere buruan zerabilen egitasmo bat. Hau, bere bizitzan bildutako herri-musikari buruzko material ezberdinez osatutako bildumarekin Herri Musikaren Dokumentazio Zentroa antolatzeke proiektua zen.

Proiektu hori erakunde eta toki ezberdinetan aurkeztu ondoren, 1995eko uztailean martxan jarri ziren Oartzunen "Herri Musikaren Txokoa" izendatutako egitasmo horren antolaketa lanak garai hartan Oartzungo alkatea zen Jon Iñarrarekin elkartu ondoren Udaletxearekin lortutako akordio baten bitartez.

Horrela, Oartzungo Udalak utzitako Ergoien auzoko eskola publikoa izandako etxea, Herri Musikaren Txokoaren behin behineko egoitza bihurtu zen. Geroztik, bertan aritu gara lanean, egunez egun, egitasmo eta helburu hau gure herriko sektore ezberdinek erabil dezaketen errealitate bat izan dadin.

Antolaketa lanetan hasteko behar genuen tokia egokituta, 1995eko bukaeran bildumako mota guztietako materiala bertara ekarri

genuen: soinu-tresnak, liburuak, musika diskoak, kaseteak, eta zintak, argazkiak eta filmazioak. Areto eta gela ezberdinetan Udalak jarritako apal, armairu eta bitrinetan jarri ziren Juan Mari Beltran Argiñenaren bildumako materialak eta berehala ekin genion mota askotako antolatzet lanei.

Piskanaka biblioteka, fonoteka, irudi artxibo eta soinu-tresnen datubaseetan material guzti hori sailkatzeko eta artxibatzeke milaka fitxa egin ziren.

Lan horretan laguntzaile asko izan genituen. Eskola eta lan ordutik kanpo pertsona asko aritu ziren bere borondatez eta proiektu hau aurrera ateratzen laguntzeko, ordenagailu aurrean liburu, disko eta bestelako fitxak betetzen, antolatzeten... 1998an soinu-tresnen erakusketa antolatzen hasi ginen. Laguntzaile askoren milaka lan orduren ondorioz, 2002. urteko martxoaren 1ean ireki zituen Herri Musikaren Txokoak ateak publiko ororentzat, eta geroztik zabalik ditu

erakusketa zein dokumentazio zentroa bera.

Honekin batera Xabier Irigorri Oartzungo orduko alkateak eta Juan Mari Beltranek akordio berri bat sinatu zuten. Bertan, proiektu honi izaera eta nortasuna emateko fundazio bat sortzeko bi aldeek adostasuna ageri zen.

Horrela, eta beti Oartzungo udalaren babesarekin, 10 urtetako ibilbide emankorra egin dugu: 32.000 bisitari, ehunka kontsulta, 152.000 bisita gure web orrian, 40 kontzertu bikoitz, HM Jardunaldien 10 edizio, Oartzungo Herri Musika Eskolako antolaketa eta kudeaketa, HM Bildumaren 9 liburu, diskoak, DVDak... eta azkenean, 10 urtetako ernaldiaren ondorioz iritsi da, fundazio bezala, izaera, nortasuna eta izen propioa izateko unea.

Egoera berriarekin batera beste egokipen bat eman diogu gure proiektu honi, herri musikaren "txokoa" izatetik herri musikaren "etxea" izatera pasa da eta izaera aldaketaren urrats hau ematearekin batera, etxe honi erabat doakion izena eman diogu: Soinuenea.

Soinuenea Fundazio berriko patronatuko bost kideetako batzarrak honako osiera du: Juan Mari Beltran fundatzaile eta eratzzaile gisa, berak izendatutako Julio Abascal eta Oartzungo Alkatea eta Kultur zinegotzia. Eusko Ikaskuntzak izendatu behar duen Folklore saileko lehendakaria den Emilio Xabier Dueñas izango da batzorde honetako bosgarren kidea.

2011ko abenduaren 22an aurkeztu eta sinatu genuen notaritzan Soinuenea Fundazioaren sorrera.

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera izaera berriarekin funtzionatzen hasiko gara. Bizi luze eta emankorra opa diogu SOINUENEA herri musikaren etxe sortu berriari!



Soinuenea Fundazio berriko sinadura ekitaldia. Ezkerretik eskuinera, aurrean Aiora Perez de San Roman Uria Oartzungo alkatea eta Juan Mari Beltran Argiñena Herri Musikaren Txokoaren zuzendaria, atzean Asier Legorburu Del Sol kultur zinegotzia eta Julio Abascal Gonzalez HM Zalearen ordezkaria. HMT

KONTZERTUAK HM TXOKOAN

Neguko kontzertua

2012ko urtarrilaren 14ean - 18:30tan

YNARHÚ / MAO FERMÍN

Horrela kantatzen du Venezuelak

YNARHÚ abeslariak, bere jatorri venezolarrak agindu bezala, jaiotzetik izan du musika eta kantarekin harremana, Madrilén Turismo ikasketak osatzen zituenean solfeo eta kantuko klaseekin aberastu zuena.

Bere musikari ibilbidean, Madrilgo "Ballet Suramericano"ko abeslari nagusi bezala zein "Ritmo de cuatro" laukotearekin Espainia eta Europako hainbat folklore eta herri musika jaialditan aritu zen.

MAO FERMÍN 13 urterekin hasi zen mandolina jotzen eta zenbait talderen sorkuntzan parte hartu ondoren 19 urterekin "Un solo pueblo" taldeko partaide bilakatu zen. Talde horretan musika eta Venezuelako foklore sakonki ikasten hasi zen. Haiekin eta Rafael Salazar musikologoarekin eta Rafael Strauss antropologoarekin Venezuelako eskualde ezberdinetan ibili zen musika jotzen eta, aldi berean, zeharkatzen zituzten eskualde haietako musika ikertzen eta ikasten.



Ynarhú-ren ahots gozoa eta Maoren maila instrumentala elkartuz, Venezuela, Hegoamerika eta Espainiako musikari honenetakoe-kin lana egin dutenengandik espe- ro daitekeena bezalako emanaldi bikaina antolatu dute. Makina bat jatorritako kulturen nahasketatik garatu eta aberastu den

Venezuelako herri musikaren forma eta erabilera ezberdinak agertzen dira bertan.

Venezolar estilo garbia azaltzen duen ikuspuntutik antolatutakoa da Ynarhú-ren ahotsak eta Mao Ferminek eskeinitako saioa. Urtetan egindako lanari esker izen ona lortu duen bikote honek doinu eta erritmoetan aberatsak diren abesti ugari plazaratuko ditu. Hala, tartean entzungo dira joropoak, baltsak, malagueñak edo polo, golpe, merenge herrikoia, pasaje eta bestelako erritmoak. Oinarri herrikoia duten doinu eta erritmoetan oso landuak dauden moldaketak sartuko dituzte jatorria inoiz izkutatu gabe.

Beraien emanaldia hasten duten momentutik, musikari bikote honen helburua izango da kontzertura hurbiltzen diren guztien belarriak Venezuelako benetako musikarekin poztea, neguko hotz eta iluntasunak beraien herrialdeko berotasun eta argiarekin uxatzea.



MIXEL ETXEKOPAR

Hots hats eta ahots

EGITARUA

1. Artzainak bortüan
2. Urrutiko kantorea
3. Txoriek-txorittua
4. Sor lekua kitatuz
5. Fandango
6. Izturitze
7. Egüntto batez
8. Adios
9. Ekialde
10. Jondane Johane

Musikari hau Gotaine Irabarnen sortua da eta bertan bizi da. Herri hau Zuberoan kokatua dago, Euskal Herria osatzen duten probintzien arteko txikienean, Pirineoaren iparraldean eta Biarnotik bertan.

Bere inguruko txoriak entzunez kantari eta txistu eginez hasia, hamabi urteren bueltan zituen hiru zuloko xirula jotzen hasi zenean. Orduan ikasi zituen dantzak eta hartutakoa inauterietan joaz eman izan ditu, baita pastoraletan edo Zuberoako hainbat girotako festetan ere.

Inguruan topatzen dituen guztiengandik ikasteko grinak bultzata Zuberoako mendietan artzain eta ardien Master Class batzu egina da.

Azken 30000 urteetan izan den xirularen jarraitzailea dugu Mixel. Jarraipen hori eman nahian aintzinako soinu-tresna horri eta berekin jo izan diren eta jotzen diren doinuei hautsa kentzea du bere bizi arrazoietakoa bat eta hala ez du zalantza izpirik azaltzen jatorria



hemen ez omen duten musika, soinu-tresna eta musikariekin xirula, eta bere laguna den ttunttuna, jotzeko. Hala, berekin aritu diren musikarien artean Euskal Herrikoak diren Beñat Achiary, Mixel Arotze eta Madi Oihenart ditugu, besteak beste. Euskal Herriatik kanpokoak ditugu Christian Vieussens, Bernard Lubat, Xavier Garcia eta Alfred Spirli, eta bertako zein kanpokoekin era eta kolore askotako musika egin du, abiatu herri musikan eta segi jazz saioetako inprobisazioekin. Urteak daromatza horrela zaharraren berritasuna bilatzen, berriaren betikotasuna edireiten.

Zuberoan bizitzea hain gustuko duen xirulari hau Xiru jaialdiaren

sortzailea ere bada. Era ugariatko emanaldi eta tailerrak biltzen dituen jaialdi honek 22. edizioa ospatu du aurten eta Gotain Irabarnen eta Altzürükün ospatu da. Bere sortzailearen filosofiarekin bat eginez, jaialdi honetan xirularen ondoan bestelako soinu-tresnak eta jatorria gertu zein urruti duten musikekin aberasten dute lehendik ezagutzen dutena.

Kontzertu honetan Mixel Etxekopar xirula eta ttunttuna jo-tzen ikusiko dugu, baina bere musikari izatea horretara mugatzen ez dela, ahotsa eta gorputza ere erabiliko ditu kantatzeko zein bestelako hotsak sortzeko. Guztia, zintzarriak eta kontrabaxua ere bai, musika egiteko.

Neguko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Auzokalte Elkartearen izango da, kontzerturako erabiliko den areto berdinean. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua muga-tua baita. Prezioa: 18 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:





Erakusketa mugikorrek idiofonoetako batzuk . HMT

HERRI MUSIKA ESKOLEN BILERA

Abenduak hamazazpigarren eguna zuenean izan ziren Oiartzungo Herri Musika Eskolako eta Hemaniko Musika Eskolako ikasle eta irakasleak Logroñon. Urtero eriohar musikariekin egiten dituzten bi elkarretaratzeetako bigarren hau martxoan Hemanin bildu zirenetik bere txandaren zain zegoen eta iritsi zenean eguraldi txukunarekin etorri zen. Horri esker, Logroñoko kaleetan barrena bazkaltzera joan aurretik bertan zebilen jende guztia animatuz kalejira giro bikainean egiteko aukera izan zuten. Tarteka soinu-tresna jotzeak ematen duen egarria baretzen tabernaren batean geldituz, tabernarietako batzuk era egokian eskertzen jakin zutena, iritsi ziren bazkalordura.

Anai arteko bazkaria, indarra hartutakoan, dultzaina, gaita eta danborrarekin, gogoia izan zuenak, bere trebetasuna erakusteko erabili zuen eta ordua iritsi zenean denak autobusean sartu ziren zintzo arraio etxeratzeke.

URTEKO BISITAK

Oraintxe bukatzeaz dagoen urte honetako bisita kopuruaren balantzea egiteko ordua iritsi da eta aurikusitakoaren arabera izan dela esan behar. Iaz bisitari kopuruan hazkunde handia izan genuen aurreko urtearekin alderatuta, 700 pertsona gehiago. Aurtengo bisitari kopurua hazkunde egonkorragoaren neurri itzuli da iazko salto horretatik bueltan.

Hala, aurtun 3700 bisitari inguru izan ditugu. Horietako 3000tik gora kopuru ezberdineko taldeetan etorri dira eta bisita gidatuaz gozatu dute.

ERAKUSKETA IBILTARIA ANGELUN

Angeluko mediatekak eta Euskal Kultur Erakundeak elkarrekin antolatu duten Musiketan zikloaren barruan abendu osorako mediatekaren parte den Georges-Pompidou galerian jarrita izango da erakusketa ibiltaria.

Joan den abenduaren 6an iriki zituen ateak Angelun abenduaren 31 arte irikita izango den *Musiketan, toutes les musiques basques* erakusketak, eta ez edonola: kontzertu batekin. Andoitz Antzizar, Ander Barrenetxea eta Juan Mari Beltranek osatutako hirukoteak erakusketan isilik dauden soinu-tresna haien artean jarritako oholtzatik euskal herri musika gaur egun denaren adibide bat eskeini zieten aretoa bete zuten entzuleei. Trikitixa, txalaparta, txistua,... euskal herri musikan hain erabiliak diren soinu-tresnekin batera gaur egun ahaztuxeago daudenak ere entzuteko parada izan zen.

Erakusketan soinu-tresnak sei multzotan banatuta daude ikusgai. Gainera gela bat egokitu da nahi duenak bertan *Euskal Herriko soinu-tresnak* bideoa ikusteko aukera izan dezan. Horretaz gain, aretoaren erdian txalaparta bat eta toberak jarri dira gogoia duenak soinu-tresna probatuz ezagutzeko aukera izan dezan.



Oiartzungo eta Hernaniko Herri Musika Eskoletako ikasleak Logroñon Alberiteko, Lizarrako eta Debako eskoletakoekin. HMT

Talde horietako 94 Euskal Herriko eskualde ezberdinetako ikastetxeetatik zetozenak izan ziren eta

tartean gipuzkoarrak izan gehienak, alde handiarekin: 78 zehatzak izateko. Bizkaitik 10 talde etorri dira, 3 Arabatik, 2 Nafarroatik eta 1 Lapurditik. Gainera, ezin da ahaztu ikastetxeetako klase eta jatorduengan irtenaldiek duten eragina.

Bisitari solteei dagokionez, 484 Euskal Herrikoak dira eta berriro Gipuzkoatik etorritakoak dira nagusi: 343. Beste 61 pertsona Espainiar estatuko bazter ezberdinetatik etorriak dira eta gainontzekoak munduko bazter guztietatik.

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 1152

Antolatutako taldeak: 44

Bisitari kopurua abendua arte: 31718

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 15556

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org

